ZARAUZKO UDALA

## ALKATETZAREN BANDOA

### EUSKAL JAIETAKO OSPAKIZUN-EKITALDIAK BERTAN BEHERA UZTEN DIRA

Irailaren 9an, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean, Euskal Jaiak ospatzen dira Zarautzen 1924. urtetik. Gure herrian guztiz errotutako festa eguna da.

Baina, inondik ere susmatzen ez bagenuen ere, aurten, jasaten ari garen aurrekaririk gabeko osasun-krisia dela-eta, derrigortuta gaude Euskal Jaien barruan urtero ospatzen ditugun ekitaldiak bertan behera uztera. Bai Udalak berak antolatutakoak, bai talde, kuadrilla eta, oro har, festan parte hartzen duen eta kaleak girotzen dituen jende guztiak antolatutakoak.

Ulertuko duzue erabakia hartzea ez dela erraza izan, baina egoerak zentzuz eta arduraz jardutea eskatzen digu, beharrezkoa delako guztion osasuna eta segurtasuna babestea.

Denok lan egin behar dugu pandemiaren kurba gelditzeko eta neurri zorrotzagoak eta murriztaileagoak hartu beharrik ez izateko; horregatik eskatzen dizuet pertsona eta talde gisa erantzukizunez jokatzeko.

Bereziki ondorengo hauek azpimarratu nahi ditut, jaien ospakizun-egunetan kontuan izateko:

- **Ezingo da erromeriarik edo musika edo dantza ikuskizunik egin espazio irekietan, ezta beste ekitaldi herrikoirik ere bide publikoan (desfileak, kaleko emanaldiak, kalez kaleko ikuskizunak edo jendearekin egiten direnak).**

- **Debekatuta dago bide publikoan salmenta-postuak jartzea (kalez kaleko salmenta barne).**

- Zarauzko ostalaritzako establezimenduen **itxiera-ordutegi berezia etenda dago.** Hortaz, ostalaritzako establezimendu eta zerbitzuak, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak **goizaldeko 01:00ak baino lehen itxiko dira, eta 00:00etatik aurrera bezeroei ez zaie sartzen utziko eta ezingo da ezer zerbitzatu.** Lokala itxita egongo da eta ezingo da ireki goizeko 06:00ak arte.

- Ostalaritzako establezimenduek **II taldeko establezimenduen** baldintzak bete beharko dituzte; beraz, kategoria horretarako gehienez jarritako betebehar guztiak izango dituzte gai hauetan: musika, soinu-ekipoak, bolumena, etab. **Inola ere ezingo dira kanpoko barrak jarri.**

- **Udaltzaingoak zorrotz zainduko ditu bide publikoan baimenduta dauden okupazioak (mahaiak eta eserlekuak) eta gainerako baldintzak.**

- Jenderik ez pilatzeko, ezingo dira honako hauek egin:

  - Gogoan izan **guztiz debekatuta dagoela "botiloia" egitea.**
  - **Debekatuta dago kalean jatea eta edatea (gosariak, hamaiketakoak, bazkariak, afariak), tabernetako/kafetegietako/jatetxeetako terrazetan eserita izan ezik.**
  - **Debekatuta dago festa hauetan ohikoak diren ibilgailuekin kalean zirkulatzea (karroak, karrotxoak, traktoreak, karrozak edo beste edozer).**
  - Orokorrean ezingo dira egin arriskua sor dezaketen edo egoerarekin bateraezinak diren ekitaldi edo jarduerak.

Inplikatutako erakunde guztiak egiten ari diren bezala, herritarrei eskatzen diet kontu handiz jarrai ditzatela Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak jarritako neurri guztiak.

Espero dut egoera hau lehenbailehen gainditzea eta hurrengo urtean gure Euskal Jai maiteak inoiz baino gehiago gozatu ahal izatea.

UDALEKO ALKATETZA - ZARAUTZ

Zarautz, 2020ko abuztuaren 26a
Alkatea

Fdo.: Xabier Txurruka Fernandez

ZARAUZKO UDALA

## SUSPENSIÓN DE LOS ACTOS DE CELEBRACIÓN DE LA FIESTA VASCA

El 9 de septiembre, festividad de la Virgen de Aranzazu, se celebra en Zarautz, desde el año 1924, la Euskal Jaia (Fiesta Vasca), fiesta de gran arraigo popular en nuestra Villa.

Pero aun cuando no lo hubiéramos ni siquiera sospechado, este año, por motivo de la crisis sanitaria sin precedentes que nos está azotando, nos vemos obligados a suspender todos los actos que anualmente se celebran con motivo de la Fiesta Vasca, organizados tanto por parte del propio Ayuntamiento como por parte de los grupos, cuadrillas y, en general toda la gente que participa y ambienta nuestras calles.

Como podréis comprender, no es una decisión fácil, pero la situación nos obliga a ser prudentes y responsables para preservar la salud y seguridad de todos.

Es obligación de todos colaborar para frenar la curva de la pandemia por lo que apelo a la responsabilidad personal y colectiva y evitar la adopción de medidas más drásticas y restrictivas.

Quiero incidir especialmente en los siguientes aspectos a tener en cuenta durante las fechas de celebración de la fiesta:

- **No podrán celebrarse romerías o espectáculos de música o danza en espacios abiertos, ni otros actos populares como desfiles, actuaciones callejeras, espectáculos itinerantes o acompañados de gente en la vía pública.**

- **Queda prohibida la instalación de cualquier tipo de puesto de venta en la vía pública, incluida la venta ambulante.**

- **Se encuentra suspendido el horario especial de cierre** de los establecimientos de hostelería en Zarautz. Los establecimientos y servicios de hostelería, restauración, txokos y sociedades gastronómicas deberán cerrar antes de la **01:00 de la madrugada y a partir de las 00:00 horas no se permitirá la entrada de clientes ni servir consumiciones.** El local deberá permanecer cerrado al público y no podrá reabrirse antes de las 06:00 horas.

- Los establecimientos de hostelería, estarán sujetos a las condiciones que, como máximo, tengan **los establecimientos del grupo II** y deberán cumplir todos los requisitos establecidos para aquella categoría en cuanto música, equipos de sonido, volumen, etc. **En ningún caso podrán instalarse barras exteriores.**

- **La Policía Municipal velará por que se respeten estrictamente las ocupaciones de vía pública, con mesas y sillas, autorizadas, así como el resto de condiciones.**

- Para evitar aglomeraciones, no se podrán realizar diversos actos:
  - Se recuerda la **prohibición absoluta de realizar "botellón".**
  - **Queda prohibido comer y beber en la calle, desayunos, almuerzos, comidas, cenas (excepto sentado en terrazas de bares/cafeterías/restaurantes)**
  - **Queda prohibido circular por la calle con todo tipo de vehículos habituales en la celebración de esta fiesta, carros, carritos, tractores, carrozas o de cualquier otra clase.**
  - No podrá realizarse, en general, ningún tipo de acto o actividad que pueda generar riesgo o resultar incompatible con la situación.

Como lo vienen haciendo todas las instituciones implicadas, insto a la ciudadanía a seguir escrupulosamente todas las medidas implementadas por el Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

Espero y confío que esta situación se supere pronto y que el año que viene podamos disfrutar más que nunca de nuestra tan querida Fiesta Vasca.

Zarautz, 26 de agosto de 2020

El Alcalde

UDALEKO ALKATEA - ZARAUTZ -

Fdo.: Xabier Txurruka Fernandez